

EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINKO ZERGAREN ARAUTEGIA

Diputatuen Kontseiluaren 3/2016 Foru Dekretua, urtarrilaren 12koa, onartzen duena ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren erregelamendua

Ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren araudia onartu zuen.

Foru arau horrek apirilaren 19ko 7/1999 Foru Araua, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena, ordeztu zuen. Arau hura onartzeko arrazoi nagusiak izan dira ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren araudia eguneratzea eta sozietateen gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan egindako erreformetara moldatzea.

Foru arau horren onarpenak berekin ekarri du ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arautegi eguneratua eta indarreko foru araudiarekin bat datorrena onartu beharra, eta horixe da foru dekretu honen bidez egin dena.

Gai honen inguruan Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena eta Aholku Batzordeak egindakoa aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

ESTABLEZIMENDU IRAUNKORREN BITARTEZ LORTUTAKO ERRENTAK

1. artikulua. Establezimendu iraunkorrari lotutako ondare elementuak.

Erakunde baten funts propioetako partaidetzaren adierazgarri den aktibo bat establezimendu iraunkor baten xede den jarduerari funtzionalki lotuta bada, aktibo hori establezimenduari lotutako ondare elementutzat hartzeko ezinbestekoa da hura Merkataritza Erregistroan inskribaturiko sukurtsala izatea, eta gainera baldintza hauek ere bete behar dira:

- a) Aktiboa establezimendu iraunkorraren kontabilitate orrietan agertu behar da.
- b) Baldin eta establezimendu iraunkorra abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 85. artikuluan ezartzen duenaren arabera sozietate nagusitzat hartu ahal bada, partaidetzak zuzentzeko eta kudeatzeko behar diren baliabide materialak eta langileak eduki behar ditu.

2. artikulua. Establezimendu iraunkor bat baino gehiago.

Zergadun batek hainbat jarduera zentro badauzka eta zergaren foru arauko 17. artikuluko 1.

idatz zatian xedatzen denaren arabera zentro bakoitza establezimendu iraunkor bat bada, bakoitzak bere izena eduki behar du.

Zergaduna pertsona juridikoa bada, aurrekoaz gainera establezimendu iraunkor bakoitzak bere identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar du.

3. artikulua. Establezimendu iraunkorrei egotzi ahal zaizkien zuzendaritza gastuen eta administrazio gastu orokorren balorazioa.

1. Establezimendu iraunkorraren bitartez lan egiten duten zergadunek establezimenduari egotzi ahal zaizkion zuzendaritza gastuak eta administrazio gastu orokorrak baloratzeko proposamenak bidali ahal izango dizkiote Zerga Administrazioari, haren gaineko kargaren oinarritik kentzeko, zergaren foru arauko 18. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran xedatzen denarekin bat etorritz. Proposamenak egiteko foru arau horretan egozketarako ezartzen diren irizpideak aplikatu behar dira.

2. Eskaren izapideak egiteko eta haien ebazteko prozedura hau aplikatuko da, hurrengo idatz zatian zehazten den berezitasunarekin: abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuak, sozietateen gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, II. tituluko III. kapituluko 4. ataleko 1. azpiatalean arautzen duen prozedura.

3. Abuztuaren 1eko 413/2014 Foru Dekretuak, sozietateen gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, 24. artikuluko 2. idatz zatian xedatzen duenari dagokionez zerga horren foru arauko 43. artikuluko 3. eta 4. idatz zatietan aipatzen den dokumentazioa gorabehera, zergadunek ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte balorazio proposamena jasotzen duen eskaerarekin batera:

- a) Proposamenean agertzen diren zuzendaritza gastuen eta administrazio gastu orokorren azalpena.
- b) Establezimendu iraunkorrari egotzen zaizkion gastuen eta banaketarako aplikatuko diren irizpideen eta moduluen identifikazioa (irizpideak eta moduluak zergaren foru arauko 18. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran ezartzen direnen artean hautatuta behar dira).
- c) Beste zerga administrazio batzuek onartutako proposamenen edo haien aurrean izapidetzen ari diren proposamenen berri ematen duen agiria.

4. artikulua. Establezimendu iraunkor batzuen tributazioa hautatzea.

Zergadun batek, zergaren foru arauko 18. artikuluko 5. idatz zatiko b) letran ezartzen denarekin bat etorritz, establezimendu iraunkorren araubide orokorra aplikatzea hautatzen badu, araubide hori eraikuntzak, instalazioak, muntaketak edo jarduerak irauten duen bitartean aplikatuko zaio establezimenduari.

II. KAPITULUA

ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK

5. artikulua. Jarduera eta ustiapen ekonomikoen zerga oinarria zehaztea.

1. Jarduera edo ustiapen ekonomiko bat egiten bada establezimendu iraunkorrik gabe, zerga oinarria zehazteko jarraian adieraziko diren partidak kendu ahal izango dira sarrera osoetatik:

- a) Jarduera edo ustiapen ekonomiko batean zuzenean aritzeko Espainiara lekualdatzen edo Espainiako lurraldean kontratatzen diren langileen soldatak, alokairuak eta gizarte zamak; nolana ere, horretarako frogatu edo bermatu beharko da bidezko zerga ordaindu dela edo lanaren etekinei dagozkien konturako ordainketak egin direla.
- b) Espainiako lurraldean egiten diren obretarako edo lanetarako behin betiko ekartzen diren materialak. Materialok ez badira eskuratzen Espainiako lurraldean, arantzel eskubideak edo balio erantsiaren gaineko zerga likidatzeko aitortzen den kopurua kendu ahal izango da.
- c) Jarduera edo ustiapen ekonomikoak egiteko Espainiako lurraldean kontsumitzen diren hornigaiak. Honi dagokionez, biltegiari gorde ezin direnak soilik hartuko dira hornigaitzat.

2. Aurreko b) eta c) paragrafoetan aipatzen diren partidak ondoko kasuan soilik kendu ahal izango dira sarreretatik: gastuak egin direla frogatzen duten fakturak edo antzeko agiriak enpresari edo profesionalen fakturazio betebeharrei buruzko arauetan eskatzen diren beharkizun formalak beteta egiten direnean.

6. artikulua. Betebehar formalak

1. Zergaren foru arauko 24. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren errentak lortzen dituzten zergadunek ondoko erregistro liburu hauek arteztu behar dituzte:

- a) Sarreraren erregistro liburua.
- b) Gastuen erregistro liburua.

2. Gainera, aurreko idatz zatian aipatzen diren zergadunek ondokoak gorde behar dituzte, dataren arabera zenbakituta: maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak, fakturazio betebeharren arautegia onartzen duenak, ezartzen duenaren arabera emandako fakturak, eta jasotako fakturak eta bestelako egiaztagirak.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak baimena dauka artikulua honetan aipatzen diren erregistro liburuak nola arteztu behar diren finkatzeko.

7. artikulua. Espainian establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten autolikidazioa.

1. Zergadun batek zergapeko errentak eskuratzen baditu establezimendu iraunkorrik gabe, zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko du eta zerga zorra zehaztu eta ordaindu beharko du.

Espainiarekin zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena sinatua daukan herrialde bateko egoiliarra den zergadun batek hitzarmen horri heldzen badiu, bertan ezarritako zergapetze mugak edo salbuespenak aplikatuko ditu autolikidazioan zerga zorra kalkulatzeko.

Horretarako, bidezko zerga agintaritzak emandako egoitza ziurtagiria erantsi beharko dio autolikidazioari, edo bestela hitzarmenen garapenerako aginduetan ezarritako formularioa.

2. Orobat, zergaren foru arauko 9. artikuluan zehazten diren erantzule solidarioek ere autolikidazioa aurkeztu ahal izango dute eta zerga zorra ordaindu ahal izango dute.

3. Zerga honen zergadunek ez dute aurkeztu beharko atxikipena edo konturako sarrera (zergaren foru arauko 31. artikulua) aplikatu zaien errenten autolikidazioa, kasu honetan izan ezik: azaroaren 4ko 35/2003 Legeak, talde inbertsioko erakundeena, arautzen dituen inbertsio funtsetako partaidetzak itzulita lortzen diren ondare irabaziak, baldin eta atxikipena zergaren foru arauko 24. eta 25. artikuluetan ezartzen denarekin bat etorritik kalkulaturako zerga kuota baino gutxiago bada.

Halaber, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharra eduki arren zergaren foru arauko 14. artikuluan edo zergapetze bikoitza saihesteko aplikatzen den hitzarmenean ezartzen denaren arabera salbuetsita dauden errenten autolikidazioa ere ez dute egin beharko.

4. Arautegi honetako 14. artikuluko 3. idatz zatiarekin bat etorritik atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharretik salbuetsita dauden zergapeko errentak eskuratzen dituzten zergadunek zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko dute artikuluko honetako aurreko idatz zatietan ezartzen den bezala.

III. KAPITULUA

ERAKUNDE EZ-EGOILIARREN ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO KARGA BEREZIA

8. artikulua. Erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia.

1. Zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliar den erakunde batek ondasun higiezin bat badauka Araban, titulua gorabehera, edo Arabako ondasun bat gozatzeko eskubide erreala, zergaren kargapean dago eta urtero, abenduaren 31n, haren gaineko karga berezia sortuko da eta hurrengo urteko urtarrilean autolikidazioa aurkeztu eta bidezko kopurua ordaindu beharko du.

Erakunde ez-egoiliar batek ondasun higiezin batzuk badauzka Araban, titulua gorabehera, edo Araban dauden ondasun higiezin batzuk gozatzeko eskubide erreala badauzka, autolikidazio bat bakarrik aurkeztu beharko du denen gaineko karga berezia ordaintzeko, eta autolikidazioarekin batera ondasun guztien zerrenda aurkeztu beharko du, ondasun bakoitza bereiz xehatuta. Horretarako, katastroan zenbaki finko edo erreferentzia berezia dutenak joko dira ondasun higiezintzat.

2. Zergaren foru arauko 33. artikuluko 5. idatz zatiko b) letran xedatzen denaren ondorioetarako, ondoko kasuetan higiezinak edukitze edo errentatze soilaz bestelako ustiapen ekonomikoa gertatzen dela pentsatuko da:

- a) Erakunde ez-egoiliarren jabetzako ondasun higiezinaren edo higiezinaren benetako balioa, edo hark gozamen eskubide erreala daukan higiezinarena edo higiezinena, ez denean ustiapen ekonomikoari lotutako ondare elementuen benetako balioa halako bost baino gehiago. Hori dela eta, ondasun higiezin bat modu partzialean erabiltzen bada

zergadunaren ustiapen ekonomikoa egiteko, erabiltzen den zatia baino ez da hartu behar kontuan.

Baldin eta, aurreko paragrafoan xedatzen denarekin bat etorritik, ez badago ondasun higiezin osoa hartzen duen ustiapen ekonomiko bereizirik, karga bereziaren zerga oinarria hauxe izango da: katastro baliotik (edo, horren ezean, ondarearen gaineko zergarako aplikatu beharreko xedapenen arabera kalkulaturako baliotik) ustiapen ekonomikoan erabiltzen ez den ondasun higiezinaren zatiari dagokion kopurua.

b) Ustiapen ekonomikoaren urteko eragiketen kopurua karga bereziaren zerga oinarria halako lau edo gehiago denean (zerga oinarria zergaren foru arauko 33. artikuluko 2. idatz zatian ezartzen denaren arabera kalkulatu behar da).

c) Ustiapen ekonomikoaren eragiketen urteko kopurua 600.000 euro edo gehiago denean.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak egoiliar ez diren erakundeen ondasun higiezinaren gaineko karga bereziaren aitorpenerako erabili beharreko ereduak ezarriko ditu.

IV. KAPITULUA

AUKERAKO ARAUBIDEA EUROPAR BATASUNEN BESTE ESTATU BATZUETAKO EGOILIAR DIREN ZERGADUNENTZAT

9. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Kapitulu honetan ezartzen den aukerako araubidea aplikatzeko eskatu ahal izango dute ondoko baldintza hauek betetzen dituzten zergadunek:

a) Zergaduna pertsona fisikoa izan behar da.

b) Espainia ez Europar Batasuneko beste estatu bateko egoiliarra dela frogatu behar du.

c) Ondokoak frogatu behar ditu:

1. Zergaldian Espainiako lurraldean lanaren eta jarduera ekonomikoen bidez lortutako etekinen batura zergaldian eskuratutako errenta guztien ehuneko 75 dela gutxienez.

2. Euskal Autonomia Erkidegoan lanaren eta jarduera ekonomikoen bidez lortutako etekinen batura Espainiako lurraldean guztira lortutako errenten zatirik handiena dela.

3. Arabako Lurralde Historikoan lanaren eta jarduera ekonomikoen bidez lortutako etekinen batura beste bi lurralde historikoetako bakoitzean eskuratutakoena baino gehiago dela.

d) Espainian lortutako errentak, aurreko letran aipatzen direnak, aurreko zergaldian ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapean egon behar izan dira.

2. Zergadunak zergaldian lortutako errenten guztirako zenbatekoa kalkulatzeko aldi horretan lortutako errenta guzti-guztiak hartuko dira kontuan, non lortu diren eta ordaintzailearen egoitza non dagoen gorabehera.

Aurreko idatz zatiko c) letrako 1. eta 2. zenbakietan xedatzen denari dagokionez, errentak zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, ezartzen duenarekin bat etorritik (lege horrek partzialki aldatzen ditu sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak).

Aurreko idatz zatiko c) letrako 3. zenbakian xedatzen denari dagokionez, errentak zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauan ezartzen denarekin bat etorritik.

3. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian aipatzen diren familia unitate motetako bateko kide diren zergadunek eskatu ahal izango dute kapitulu honetan arautzen den aukerako araubidea araudi horretan baterako tributazioaz ezartzen dena kontuan hartuta aplikatzeko, baldintza hauek betez gero:

- a) Ezkontideak, edo izatezko bikotekideak (bikotea Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearekin bat etorritik eratu egon behar da), eta familia unitateko gainerako kideek Europar Batasuneko estatu batean bizi direla frogatu behar dute.
- b) Aurreko 1. idatz zatiko c) eta d) paragrafoetan ezartzen diren baldintzak bete behar dira, familia unitateko kide guztien errentak kontuan hartuta.
- c) Eskatera familia unitateko kide guztiek egin behar dute, edo haien legezko ordezkariak.

4. Kapitulu honetan ezartzen den aukerako araubidea aplikatuz gero, zergaldia egutegiko urtea izango da. Hala ere, zergaduna abenduaren 31 ez beste edozein egunetan hilez gero, zergaldia heriotza egunean amaituko da.

Familia unitatea nortzuek osatzen duten zehazteko urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen egoera hartuko da kontuan. Urtean zehar familia unitateko kide bat hilez gero, gainerako kideek baterako tributazioa hautatu ahal izango dute. Hala gertatuz gero, aitorpenean hildakoaren errentak sartu behar dira eta, bidezkoa bada, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian ezartzen diren familia kenkariak aplikatu.

5. Aukerako araubidea ezin zaie inolaz ere aplikatu arau bidez zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde batean bizi diren zergadunei.

10. artikulua. Araubidearen edukia.

1. Araubidea aplikatu daitekeela egiaztatuz gero, artikulua honetan xedatzen denaren arabera aplikatuko da.

2. Zerga Administrazioak zehaztuko du zenbatekoa den aukerako araubidea aplikatzeko eskatzen duen epealdian zergadunari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren karga.

Kalkuluan ondokoak hartu beharko dira kontuan:

- a) Zergadunak zergaldian eskuratutako errenta guztiak zenbatuko dira eta aintzat hartuko dira behar bezala frogatutako inguruabar pertsonalak eta familiarrak.
- b) Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, 75. artikuluko 1. idatz zatian xedatzen duena aplikatuko da.
- c) Zerga Administrazioak batez besteko karga tasa finkatuko du; tasa hori kalkulatzeko jarraian adieraziko den zatiketaren emaitza 100ez biderkatu behar da:
 - Zenbakitzailea, batetik, honela kalkulatu da: kuota osotik azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, VII. tituluan arautzen dituen kenkarien zenbatekoa (92. artikuluko kenkaria ez beste guztiak) kendu behar da.
 - Izendatzailea likidazio oinarria izango da.Batez besteko karga tasa bi hamartarrekin eman behar da.
- d) Hala kalkulatzeko den batez besteko karga tasa kopuru honi aplikatuko zaio: aukerako araubidea aplikatu dezakeen zergadunak Espainiako lurraldean zergaldian eskuratutako errentei likidazio oinarrian dagokien zatiari.

3. Aurreko idatz zatian azaldutako eragiketen emaitza gutxiago bada zergadunak Espainiako lurraldean lortutako errentek ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zioz jasaten duten kargarengatik zergaldian ordaindutako kopuru guztien batura baino (konturako ordainketak barne), Zerga Administrazioak behar diren egiaztapenak egingo ditu eta gero gaindikina itzuliko dio (hurrengo artikuluan zehaztuko da nola).

11. artikulua. Prozedura.

1. Arautegi honetako 9. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten zerga honen zergadunak kapitulu honetan arautzen den aukerako araubidea aplikatzeko eskatu ahal izango dute.

Zergaduna hiltzen bada, haren oinordekoek eskatu ahal izango dute.

2. Zerga Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak eskatu ahal izango dizkio zergadunari aukerako araubidea aplikatzeko baldintzak betetzen direla frogatzeko.

Behar izanez gero, Zerga Administrazioak errekerimendua bidaliko dio zergadunari hilabete pasatu baino lehen behar den dokumentazioa aurkezteko, eta ohartaraziko dio eskatutakoa aurkeztu ezean eskaeran atzera egin duela pentsatuko duela.

Araubidea aplikatu daitekeela frogatzeko edo kontuan eduki beharreko inguruabar pertsonalak edo familiarrak frogatzeko aurkeztu diren agirietako bat ez badago idatzita Euskal Autonomia Erkidegoan ofiziala den hizkuntza batean, itzulpenarekin aurkeztu behar da.

3. Eskaera ebazteko erabakia eman aurretik espedientearen berri emango zaio zergadunari (edo beraren ordezkariari), nahi dituen alegazioak aurkez ditzan.

4. Zerga Administrazioak sei hileko epealdia edukiko du ebazpena emateko eskaera aurkezten denetik. Hala ere, prozedura justifikatuta eteten bada edo atzerapena gertatzen bada Administrazioari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik, etenaldia edo atzerapenaldia ez da sartuko ebazpena emateko epealdiaren konputuan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta hura garatzen duten arauetan ezartzen den bezala.

Epealdi horretan ebazpenik eman ezean, zergadunak eskaera ezetsizat jo ahal izango du eta, ondorioz, ustezko ebazpenaren kontra errekurtsioa edo erreklamazioa aurkeztu ahal izango du edo, bestela, berariazko ebazpenari itxaron.

Eskaera isilbidez ezesten bada, ondoko berariazko ebazpena ez da egongo lotuta isiltasunaren esanahiarekin.

5. (1) Ebazpenean aurreko artikuluan xedatzen denaren arabera egindako kalkuluak agertu behar dira. Arautegi honetako 10. artikuluko 3. idatz zatian azaltzen dena gertatuz gero, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du gaindikina. Hala ere, gero bidezko likidazioak egingo dira, behin-behinekoak zein behin betikoak.

Gaindikina aurreko 4. idatz zatian arautzen den epealdian itzuliko da. Epealdi horretan ez bada agintzen itzuli beharrekoa ordaintzeko eta ez badago etenaldi arrazoiturik edo administrazioari egotz ezin dakioken atzerapenik, aplikatu beharreko berandutza korrituen sortzapenez eta ordainketaz Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatzen dena aplikatuko da.

6. Artikulu honetan aipatzen diren itzulketak ordaintzeko modua eta prozedura arautegi honetako 20. artikuluan xedatzen denaren arabera egin beharreko itzulketetarako ezarritakoak dira.

V. KAPITULUA

KONTURAKO ORDAINKETAK

LEHENENGO ATALA

ESTABLEZIMENDU IRAUNKORREN BITARTEZ LORTUTAKO ERRENTAK

12. artikulua. Establezimendu iraunkorren konturako ordainketak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko errentetatik establezimendu iraunkorren bitartez lortzen direnei atxikipenak edo konturako ordainketak aplikatuko zaizkie. Establezimendu iraunkorrek konturako ordainketak egin beharko dituzte sozietateen gaineko zergaren Arabako araudian zerga honen zergadunentzat ezartzen diren kasu beretan eta baldintza berak beteta.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzen den kasuetan ez ezik ondokoei ere ez zaie aplikatu behar atxikipenik ez konturako sarrerarik: Espainiako lurraldean egoitzarik ez duten finantza erakundeen establezimendu iraunkorren sarrera diren korrituei eta komisioei, baldin eta erakundeak abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuak, sozietateen gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, 51. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen dituen erakundeen

berezko jardueretako bat egiten badu eta korritua edo komisioa establezimendu iraunkorraren bitartez emandako mailegu baten ondoriozkoa bada (salbuespena: 3. idatz zatiko bigarren paragrafoan aipatzen diren errentak).

BIGARREN ATALA

ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK

13. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharra.

1. Zergaren foru arauko 31. artikuluan ezartzen dena gertatzen denean, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentetatik ez-egoiliarren errentaren zergaren kargapean daudenei atxikipena aplikatu behar zaie.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen diren errentak gauzatan ordaintzen badira, hartzaileak jasaten duen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargaren konturako sarrera aplikatu behar da.

14. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharraren albuespenak.

1. Zergaren foru arauko 31. artikuluko 4. idatz zatian aipatzen diren kasuetan ez dago ez atxikipenik ez konturako sarrerarik egin beharrik.

2. Zergaren foru arauko 31. artikuluko 4. idatz zatian xedatzen dena aplikatzeko, honela frogatu behar da zerga zorra ordaindu dela edo albuespena aplikatu daitekeela:

- a) Zorra ordaindu dela frogatzeko, zergadunak edo beraren ordezkariak ordaindutako errenten aitortpena aurkeztu behar du.
- b) Albuespena aplikatu daitekeela frogatzeko, aplikazioa bidezkoa izateko gertatu beharreko inguruabarrak gertatu direla frogatzen duten agiriak aurkeztu behar dira. Nolanahi ere, autolikidazioa ere egin beharko da, zergaren foru arauko 31. artikuluko 5. idatz zatian ezartzen den bezala.

Aurreko inguruabarretako bat gertatu dela frogatu duela uste izanik, atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak egiten ez badu atxikipena edo konturako sarrera, eta geroago erabakitzen bada albuespena ez dela izan bidezkoa edo zerga zorra ez dela ordaindu, egin gabeko atxikipenagatik edo konturako sarreragatik atxikitzaile gisa dagozkion erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

3. Zergaren foru arauko 31. artikuluko 4. idatz zatian xedatzen denaren ondorioetarako, jarraian adieraziko diren errentak direla eta ez da egin behar atxikipenik ez konturako sarrerarik:

- a) Zergaren foru arauko 14. artikuluan xedatzen denaren arabera edo zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen aplikagarri baten arabera salbuetsita dauden errentak.

Hala ere, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar da zergaren foru arauko 14. artikuluko 1. idatz zatiko m) eta n) letretan aipatzen diren errentak direla eta.

b) Ondare irabaziak.

Hala ere, ondoko hauek direla eta atxikipena edo konturako sarrera egin beharko da:

1. Jokoetan, lehiaketetan, zozketetan edota ausazko konbinazioetan parte hartuta lortzen diren sariak, ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintzari, sustapenari edo salmentari lotuta egotea gorabehera.

2. Araban dauden ondasun higiezinaren eskualdaketa (arautegi honetako 18. artikulua).

3. Talde inbertsioko erakunde baten kapitalaren edo ondarearen adierazgarri diren akzioak edo partaidetzak eskualdatuta edo itzulita lortutako errentak, azaroaren 4ko 35/2003 Legearen, talde inbertsioko erakundearen, arautegiko 79. artikuluan arautzen diren funts eta sozietateetako partaidetzak edo akzioak itzulita edo eskualdatuta lortutako errentak izan ezik (arautegi hori uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onartu du).

c) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren arautegiko 78. artikuluko b), c), f), g) eta i) letretan aipatzen diren errentak. b) letran aipatzen direnetako batzuk aurrean esandakotik salbuetsita daude, hain zuzen ere arau bidez zerga paradisu kalifikatutako herrialde edo lurraldeen bidez lortzen direnak.

(1) Aurrekoa gorabehera, atxikipena edo konturako sarrera egin beharko da kapital soziala murriztu eta ekarpenak itzultzen direnean eta akzio jaulkipeneko prima banatzen denean, Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren Arautegiko 78. artikuluko 3. letrako bigarren paragrafoan xedatzen den bezala.

4. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio balore negoziagarrien jaulkipenen emaitzaren gaineko atxikipenak aplikatzeko (kasu bakoitzean bidezko den tasarekin) edo atxikipenak egin beharretik salbuesteko prozedura ezartzeko.

15. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten subjektuak.

1. Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzte zergaren foru arauko 31. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren subjektuek.

2. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren arautegiko 79. artikuluko 2. idatz zatiko b), c) eta d) letretan ezartzen denaren arabera atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar dituzten subjektuek atxikipena edo konturako sarrera egin behar dute ondoko kasu hauetan: finantza aktiboaren gaineko eragiketetan; Estatuaren Zorraren baloreen eskualdaketatik; talde inbertsioko erakundearen kapitalaren edo ondarearen adierazgarri diren akzioen eta partaidetzen eskualdaketatik edo itzulketetatik (are Europar Batasuneko beste estatu bateko sozietate kudeatzaile baimenduek azaroaren 4ko 35/2003 Legeak, talde inbertsioko erakundearen, ezartzen duenaren arabera Espainian zerbitzuak libre emateko araubidean merkaturatutako akzioen edo partaidetzen ondoriozkoetan ere); sozietate baten kapitala murriztu eta ekarpenak itzuli eta akzioen jaulkipen primak banatzen direnean (kasu hauek arautegi honetako 14. artikuluko 3. idatz zatian arautzen dira).

(1) Nolanahi ere, azaroaren 4ko 35/2003 Legeak, talde inbertsioko erakundearen, arautzen dituen talde inbertsioko erakundearen akzioen edo partaidetzen eskualdaketatik eta

itzulketetan, baldin eta eragiketa arautegi honetako xedapen gehigarrietatik lehenengoan aipatzen den mugaz gaindiko merkaturatzearen barruan egiten bada, erakundearen sozietate kudeatzaileak egin beharko du atxikipena edo konturako sarrera, eta halakorik ezean inbertsio sozietateak.

3. Sarien kasuan, saria ordaintzen duen pertsonak edo erakundeak egin behar du atxikipena edo konturako sarrera.

4. Atxikipenak egin behar dituzten subjektuek haien kopuruak ordaindu behar dituzte; atxiki beharra ez betetzeak ez ditu salbuetsiko betebeharrak horretatik.

Etekina Arabako Foru Aldundiak ordaintzen badu, atxikipena eta sarrera zuzenean egingo dira.

16. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egin beharra sortzea.

1. Oro har, atxikipena eta konturako sarrera egin beharra zergaren sortzapenarekin batera sortuko da, zergaren foru arauko 27. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz.

2. Kapital higigarriaren etekinei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegiko 91. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie eta ondare irabaziei 118. artikuluan ezartzen dena.

17. artikulua. Atxiki edo sartu beharreko kopurua kalkulatzeko oinarria.

1. Oro har, atxiki beharreko kopurua kalkulatzeko oinarria zergaren foru arauko 31. artikuluko 2. idatz zatian xedatzen denaren arabera zehaztuko da.

Ondorio horietarako, pertsona fisiko batek jasotzen badu kapital geroratu bat osorik edo partez 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako primei dagokiena, aplikatuko da Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren Araudiak, martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 93. artikuluko 5. idatz zatian ezarritakoa.

2. Arautegi honetako 14. artikuluko 3. idatz zatiko b) letrako 1. puntuan aipatzen diren sarietako baten gaineko atxikipena kalkulatzeko oinarria sariaren zenbatekoa izango da.

3. Talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen adierazgarri diren akzioak edo partaidetzak eskualdatzen edo itzultzen badira, atxikipenaren oinarria haxe izango da: akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketa balioaren eta eskuraketa balioaren arteko diferentzia. Hori dela eta, zergadunak eskualdatu edo ordaindutako baloreak lehenengo eskuratu zituenak direla pentsatuko da.

Ondorio horietarako, pertsona fisikoek 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu bazituzten talde inbertsioko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzeko akzioak edo partaidetzak, aplikatuko da Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren Araudiak, martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 97. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoa.

Hala ere, aurreko paragrafoan aipatzen den antzinasunaren erregela partaideen erregistroan agertzen diren partaidetzei aplikatuko die ordainketa egiten duen erakunde kudeatzaileak edo merkaturatzaileak, ondoko bi baldintzak betez gero: batetik, azaroaren 4ko 35/2003 Legeak, talde inbertsioko erakundeenak, arautzen dituen inbertsio funtsetako partaidetzak ordaintzen badira eta lege horretako 40. artikuluko 3. idatz zatian ezartzen denaren arabera partaide erregistro bat baino gehiago badago; bestetik, ordainketa egiten duten partaideek, aldi berean, beste erakunde batean erregistratutako partaidetza homogeneousen titularrak izan badira.

Aurreko paragrafoan azaltzen diren inguruabarrak gertatzen direnean, partaideak horren berri jakinarazi beharko dio ordainketari dagokion atxikipena edo konturako sarrera egin behar duen erakundeari, idatziz edo jaso izana egiaztatu ahal izateko moduan. Horrelakoetan erakundeak jakinarazpena gorde eta Zerga Administrazioaren eskura eduki beharko du ordaindutakoen partaidetza homogeneousak zergadunaren izenean erregistratuta dauzkan bitartean eta, gutxienez, preskripzio aldia amaitu arte.

4. Errentak gauzatan ordaintzen direnean, konturako sarrera kalkulatzeko oinarria pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegiko VII. tituluko III. kapituluan xedatzen denarekin bat etorritz zehaztuko da.

5. (1) Atxikipena edo konturako sarrera egin beharra azaroaren 27ko 27/2014 Legearen, sozietateen gaineko zergarenaren, 18. artikuluko 11. idatz zatian ezartzen denaren ondoriozko bigarren mailako doikuntzagatik gertatzen bada, atxikipenaren edo konturako sarreraren oinarria hitzartutako balioaren eta merkatuko balioaren arteko aldea izango da.

18. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera ondasun higiezinak eskuratzen denean.

1. Establezimendu iraunkorrik gabe diharduen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun batek Araban dagoen ondasun higiezin bat eskualdatuz gero, eskuratzaileak hitzartutako kontraprestazioaren ehuneko 3 atxiki eta sartu behar du zerga horren konturako ordainketa gisa, edo kopuru horretako konturako ordainketa egin.

2. Ondoko kasuetan eskuratzaileak ez du edukiko atxikipenik ez konturako ordainketarik egin beharrik:

- a) Eskualdatzaileak Zerga Administrazioako organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez frogatzen duenean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren kargapean dagoela.
- b) Espainiako lurraldean egoitza duten sozietate baten eraketan edo kapital gehikuntzan ondasun higiezinak ematen direnean.

3. Atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak hilabeteko epealdia edukiko du eskualdaketa egunetik Foru Ogasunari autolikidazioa aurkezteko eta atxikipenaren zenbatekoa sartzeko edo konturako sarrera egiteko.

4. Egoitza Espainiako lurraldean ez duten zergadunek zergaren aitortpena egin beharko dute eta, behar denean, behin betiko karga ordaindu beharko dute, kuotan konpentsazio hau aplikatuta: eskuratzaileak atxikitako edo kontura ordaindutako zenbatekoa. Horretarako hiru hileko epealdia edukiko dute atxikipena sartzeko epealdia amaitzen denetik.

Zerga Administrazioak behar diren egiaztapenak egingo ditu eta gero, atxikitakoa edo kontura egindako sarrera behar baino gehiago izan bada, gaindikina itzuliko dio zergadunari.

5. Aurrean aipatutako atxikipena edo konturako sarrera ordaintzen ez bada, eskualdatutako ondasunak ondoko bi kopuruetatik txikiena ordaintzeko erabiliko dira: atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa edo zergaren karga. Jabetzaren erregistratzaileak horren berri emango du inskripzioan, alboko oharra eginez, eta finka zer kopururi aurre egiteko erabiliko den zehaztuko du. Oharra bi modutan ezeztatu daiteke, iraungiz gero eta ondokoetako bat aurkeztuz gero: ordain gutuna edo eragiketa zergaren kargapean ez dagoela edo zorra preskribatuta dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

6. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak artikuluko honetan xedatzen dena betetzeko erabili beharreko aitorten ereduak ezarriko ditu.

19. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak.

1. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipena edo konturako sarrera egin behar dutenek apirilako, uztaileko, urriko eta urtarrileko egutegiko lehen hogeita bost egunetan aurreko egutegiko hiru hilekoan atxikitako eta kontura sartutako kopuruen autolikidazioa aurkeztu beharko diote Foru Ogasunari, eta zenbatekoa ordaindu beharko diote.

Hala ere, atxikipena edo konturako sarrera egin behar duena balio erantsiaren gaineko zergaren arautegiko 71. artikuluko 3. idatz zatiko 1. puntuan azaltzen diren inguruabarretan badago (arautegi hori apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartu du), hil bakoitzeko atxikipenen edo konturako sarreraren autolikidazioa eta ordainketa, aurreko paragrafoan aipatzen direnak, hurrengo hileko lehen hogeita bost egunetan egin beharko ditu. Salbuespen gisa, uztaileko aitortea eta sarrera abuztuan eta iraileko lehen hamar egun naturaletan egin daitezke.

Atxikitzaleek eta konturako sarrerak egiten dituztenek aitorten negatiboa aurkeztu beharko dute zergaren foru arauko 31. artikuluko 4. idatz zatian adierazten diren errentak ordaintzen dituztenean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak besterik adierazten duen kasuetan izan ezik.

2. Atxikitzaleak edo konturako sarrera egin behar duenak urtean egindako atxikipenen edo konturako sarreraren laburpena aurkeztu behar du hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 25era bitartean.

Laburpena telematikoki edo ordenagailuan irakur daitekeen euskarri batean eginez gero, urtarrileko lehen hogeita hamar egunetan aurkeztu ahal izango da.

Idatz zati honetako aurreko paragrafoetan arautzen dena gorabehera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak aitorten bide telematikoz aurkezteko epealdia luzatu ahal izango du, arrazoi teknikoetan oinarrituta.

Laburpen horretan, identifikazio datuak adierazteaz gainera, atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituenak ordaindu dituen zergaren kargapeko errentak nortzuek jaso dituzten zehaztu behar du, hau da, errenta horien jasotzaileen zerrenda egin behar du, eta zerrendan ondoko hauek ere agertu behar dira: zergaren foru arauko 31. artikuluko 4. idatz zatian arautzen denaren arabera atxikipenik aplikatu ez zaien errenten jasotzaileak.

Jasotzaileen zerrendan Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen dituen datuak agertu beharko dira. Aurreko paragrafoetan ezartzen diren betebeharrak eurak edukiko dituzte Espainian egoitza edo ordezkariak duten erakundeek, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dakarten errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo balore errentak gordailatzen badituzte edo haien kobrantza kudeatzen badute.

3. Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituztenek ziurtagiria eman behar diete zergadunei ondokoak frogatzeko: batetik, egindako atxikipenak edo konturako sarrerak; bestetik, aurreko idatz zatian aipatzen den urteko laburpenean agertu beharreko gainerako datuak.

Aurreko paragrafoan ezartzen diren betebeharrak eurak edukiko dituzte Espainian egoitza edo ordezkariak duten erakundeek, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egin beharra dakarten errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo balore errentak gordailatzen badituzte edo haien kobrantza kudeatzen badute.

4. Ordaintzaileek errentak ordaintzean zergadunei jakinarazi behar diete zenbatekoa den aplikatutako atxikipena edo konturako sarrera, eta ehunekoak zehaztu behar diete.

5. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak artikulu honetan xedatzen dena betetzeko erabili beharreko aitorpen ereduak ezarriko ditu.

20. artikulua. Itzulketak

1. Jasandako atxikipen edo konturako sarrera bat zergaren kuota baino gehiago bada, Zerga Administrazioari eskatu ahal izango zaio kuota gainditzen duen kopurua itzultzeko.

Horretarako zergaren autolikidazioa egingo da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten duen ereduaren.

2. Zergaren foru arauko 3. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, Zerga Administrazioak azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergarenak, 112. artikuluan ezartzen duen bezala egingo ditu itzulketa horiek.

3. Zergadunek ez ezik erantzule solidarioek eta atxikipena egin behar duten pertsonak ere aurkeztu ahal izango dituzte aitorpenak itzulketa eskaerarekin.

4. Kontura sartutako kopurua edo jasandako atxikipena zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat aplikatuz sartu edo jasan beharrekoa baino gehiago bada, hitzarmena aplikatzeko eskatu ahal izango da, bai eta haren ondorioz egin beharreko itzulketa egiteko ere, sarrera egin den egunetik edo aitorpena egiteko eta atxikipena ordaintzeko epealdiko azken egunetik bost urte pasatu baino lehen. Elkarrekikotasunik ez badago, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak beste epealdi bat ezarri ahal izango du.

21. artikulua. Lanaren errenten gainean atxikipenak aplikatu beharra egoitza aldatzen denean.

1. Zerga honen kargapean ez dauden besteren konturako langileak zergadun bihurtuko badira enplegatzaileak atzerrira bidali dituelako, inguruabar horren berri eman ahal izango diote Zerga Administrazioari.

2. Berriematean datu hauek eman behar dira: langilearen eta lanaren etekinen ordaintzailearen identifikazioak, langilea noiz joango den atzerrira eta noiz hasiko den bertan lanean. Gainera zehaztu behar da lan harreman horretan ba ote dagoen daturik pentsarazten duenik langilea egoitza aldaketa gertatzen den egutegiko urtean, edo hurrengoan, bestela, atzerriko herrialdean lanean ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago egon beharko dela.

3. Berriematea eta berarekin aurkeztutako agiriak aztertu ondoren Zerga Administrazioak frogagiria bidaliko dio langileari, bidezkoa bada, berriematea aurkezten denetik hamar egun baliodun pasatu baino lehen, zerga honen atxikipenak zer egunetan hasiko diren egiten adierazteko.

4. Langileak Zerga Administrazioak emandako agiriaren ale bat emango dio lanaren etekinen ordaintzaileari, atxikipenak aplikatzean ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergaduntzat har dezan bertan adierazten den egunetik aurrera.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenak egiteari dagokionez, frogagiri horiek egutegiko bi urtetan sortuko dituzte ondorioak gehienez, hain zuzen ere langilea atzerrira doan urtean eta hurrengoan, edo bestela, atzerrira doan urtea konputatzerik ez badago, hurrengo bietan.

5. Prozedura hori bera erabili ahal izango da kasu honetan: Araban lortutako errentak kalkulatzeko erregelen arabera (zergaren foru arauko 13. artikuluan ezartzen direnak) Araban atxikipenik egiterik ez dagoenean. Horrelakoetan langileak kontuan hartuko dira zergaren foru arauko 31. artikuluko 5. idatz zatian arautzen diren betebeharrei dagokienez.

6. Goian azaldutako prozeduraren bitartez frogagiria eskuratuta ere, langileak bere zerga egoitza berria non dagoen frogatu beharko dio Zerga Administrazioari.

HIRUGARREN ATALA

ERRENTAK ESLEITZEKO ARAUBIDEAN DAUDEN ERAKUNDEAK

22. artikulua. Zatikako ordainketak egin beharra.

Zergaren foru arauko 38. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren zergadunek zatikako ordainketak egin beharko dituzte zerga honen likidazioaren kontura Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorra duten zergadunek egiten dituzten bezala.

23. artikulua. Itzulketak, zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen onuragarriago bati heltzen zaionean.

Zergaren foru arauko 38. artikuluko 4. idatz zatian xedatzen denaren arabera norbaitek zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bati heltzen badio, arautegi honetako 20. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. (1) Espainiako talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak mugaz haraindi merkaturatzea

1. Ondoren adieraziko den kasuan atzerrian egoiliartutako erakunde merkaturatzaileek Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Arautegiko xedapen gehigarrietatik lehenengoa ezartzen diren zerrendak aurkeztu behar dizkiote Arabako Foru Aldundiari (arautegi hori ondoko honek onartu zuen: uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretua, sozietate kudeatzaileek edo, bestela, azaroaren 4ko 35/2003 Legeak, talde inbertsioko erakundeenak, arautzen dituen inbertsio sozietateek atzerrian egoiliartutako erakundeen izenean dauden kontu orokorretan akzioen edo partaidetzen mugaz haraindiko merkaturatze eragiketarako erregistratu behar dituzten kasuak arautzen dituena): zergaren foru arauko 13. artikuluko 2. idatz zatiko k) letrako a') letran ezartzen denaren arabera akzioen eta partaidetzen titulartasunaren ondoriozko errentak Arabako Lurralde Historikoan lortutzat jotzen direnean.

Horiek aurkezteko prozedurak, ereduak eta epealdiak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehaztuko ditu.

2. Erakunde merkaturatzaileak aurreko 1. idatz zatian eta Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Arautegiko xedapen gehigarrietatik lehenengoko 3. idatz zatian (arautegi hori uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuak onartu zuen) aipatzen diren betebeharretako bat bete ezean, erakunde kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak horren ondorioz edo Arabako Foru Aldundiari behar den informazioa ez ematearen ondorioz ordaindu gabeko atxikipenen eta konturako ordainketen erantzukizuna edukiko du Zerga Administrazioarekiko.

3. Erakunde merkaturatzaileak aurreko 1. idatz zatian eta Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Arautegiko xedapen gehigarrietatik lehenengoko 3. idatz zatian (arautegi hori uztailaren 30eko 1776/2004 Errege Dekretuak onartu zuen) aipatzen diren betebeharretako bat bete ezean, inbertsiogile ez-egoiliarren nortasuna eta haien zerga egoitza ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauan, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenean, eta bera garatzen duten arauetan xedatzen denaren arabera egiaztatuko dira.

Bigarrena. Itzulketa eskaera ohiko etxebizitzan berrinbertsioa egiteagatik.

1. Ordaindutako zerga zorra osorik edo partez itzultzea eskatu ahal izango da, baldin badagokio egoitza Europar Batasuneko kide den estatu batean edo Europako Esparru Ekonomikoko kide den eta harekin benetako informazio trukea dagoen estatu batean duen zergadun batek Araban ohiko etxebizitza izandakoa eskualdatzean lortutako ondare irabaziari, xedapen honetan ezartzen diren baldintzekin.

2. Zergadunak egoitza ez badu Espainiako lurraldean, ohiko etxebizitza eskuratu eta hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dio eskaera zerga administrazioari.

3. Eskaerarekin batera, zergadunak agiri bidez egiaztatu beharko du Arabako ohiko etxebizitza eskualdatu duela eta, gero, ohiko etxebizitza berria eskuratu duela.

Zerga administrazioak behar diren egiaztapenak egingo ditu eta gero, hala badagokio, ordaindutako gaindikina itzuliko dio zergadunari.

4. Xedapen honetan adierazitakoa aplikatzeko, kontuan hartuko da Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren Araudiak, martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 41 eta 41 bis artikuluetan ezarritakoa.

Hirugarrena. (3) Pentsio funtsak eta inbertsio kolektiboko erakundeak direla eta, egoitza ziurtagiria aurkeztea, zenbait salbuespen aplikatzeko.

1. Zergaren foru arauaren 14.1 artikularen b) letran jasotako salbuespena aplikatu ahal izateko, xedapen gehigarri honetan ezartzen den moduan egiaztatu ahal izango dute egoitza errentak erakunde hauetakoren baten bidez eskuratzen dituztenek:

a) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen Pentsio Plan eta Fun-tsak arautzeko Legearen testu bateginean araututako pentsio funtsen baliokideak edo pentsio funts horien establezimendu iraunkorrak.

Pentsio funts baliokidetzat hartuko dira zergari buruzko foru arauaren 14.1 artikuluko m) letran ezarritako baldintzak betetzen dituzten gizarte aurreikuspeneko erakundeak.

Halaber, pentsio funts baliokidetzat joko dira enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 Zuzentarauak araututako gizarte aurreikuspeneko erakundeak.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EB Zuzentarauak araututako inbertsio kolektiboko erakundeak. Zuzentaru horrek balio higigarrietan inbertitzen duten inbertsio kolektiboko erakunde jakinen lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatzen ditu.

c) Inbertsio kolektiboko erakunde alternatiboak, administrazioaren baimen, erregistro eta ikuskapen araubidearen menpe daudenak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/EB Zuzentarauak araututako inbertsio funts alternatiboen kudeatzaileek kudeatzen dituztenak. Zuzentaru hori inbertsio funts alternatiboen kudeatzaileei buruzko da eta 2003/41/EE eta 2009/65/EE Zuzentarauak aldatzen ditu, bai eta 1060/2009 (EE) eta 1095/2010 (EB) erregelamenduak ere.

2. Xedapen gehigarri honen 1. apartatuan aipatutako erakundeak ez badira errentak esleitzeko araubideko erakundetzat jotzen, egoitza honela egiaztatu behar da:

a) Pentsio funtsa xedapen gehigarri honetako lehenengo apartatuko a) letrako hirugarren paragrafoan aurreikusitako pentsio funtsetako bat ez bada, funtsak lege betekizunak betetzen dituela adierazten duen aitortpena egin beharko du haren ordezkariak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen duen ereduaren eta edukiaren arabera. Aitorpen hori urtebetez izango da baliozkoa, egiten den egunetik zenbatzen hasita.

Xedapen gehigarri honen 1 apartatuko a) letrako hirugarren paragrafoko pentsio funtsetako bat bada, erakundea ezarrita dagoen estatuko erakunde eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da egoitza. Ziurtagiri horretan agertu beharko da 2016/2341 Zuzentarauaren babespean baimendutako edo erregistratutako enpleguko pentsio funtsa dela, eta horrez gain, hauek ere: erakundearen izen osoa, egoitza, zein estatutan dagoen

eta baimenaren eguna edo administrazio erregistroaren zenbakia. Agintaritza eskuduna arduratuko da erakundeari baimena emateaz eta hura erregistratzeaz edo ikuskatzeaz.

Dena dela, xedapen gehigarri honen 1 apartatuko a) letran aipatzen diren pentsio funtsak ez dira errentak esleitzeko araubideko erakundetzat jotzen.

b) Xedapen gehigarri honen 1.b) atalean aurreikusitako inbertsio kolektiboko erakunde bat bada, erakundearen jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunak emandako ziurtagiri bidez egiaztatu behar da egoitza. Ziurtagiri horrek OICVM ziurtagiri ereduaren eduki bera behar du, salbu eta ziurtagiria igortzeko arrazoiari dagokionez. Ziurtagiri eredu hori jasota dago Europako Batzordearen 2010eko uztailaren 1eko 584/2010 EB Erregelamenduaren II. eranskinean, eta erregelamendu horrek ezartzen ditu 2009/65/EE Zuzentarauaren aplikatzeko xedapenak. Aipatutako zuzentarauaren 97. artikuluan ezartzen denaren arabera izendatutakoa izango da agintaritza eskuduna.

c) Xedapen gehigarri honetako 1.c) atalean aurreikusitako inbertsio kolektiboko erakunde bat bada, egoitza honako modu hauetakoren baten bidez egiaztatu behar da:

1. Erakundea ezarrita dagoen estatuko agintaritza eskudunak emandako ziurtagiria, zeinetan agertu behar baitira erakundearen izen osoa, egoitza, zein estatutan dagoen ezarrita, forma juridikoa eta baimenaren eguna edo administrazio erregistroko zenbakia, eta autokudeaketa egiten duela, edo 2011/61/EB Zuzentarauarekin bat etorri baimendutako erakunde kudeatzaile batek kudeatzen duela, eta erakunde kudeatzaile horren izena eta egoitza. Agintaritza eskuduna arduratuko da erakundeari baimena emateaz eta hura erregistratzeaz edo ikuskatzeaz.

2. Erakundearen ordezkariak edo hura kudeatzen duen erakundeak egindako aitorpena. Aitorpen horretan aurreko 1 zenbakian aipatutako informazioa ez ezik, honako hauek ere agertu behar dira: sozietatearen izena eta erakunde gordailuzainaren egoitza, eta bat etorri behar du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen duen ereduarekin. Aitorpen hori urtebetez izango da baliozkoa, egiten den egunetik zenbatzen hasita.

Apartatu honetan aipatutako ziurtagiriek balio mugagabea izango dute, salbu eta betetako datuetan aldaketarik badago; kasu horretan, aldaketen berri eman behar zaio salbuespena aplikatzen duen erakundeari, eta une horretatik aurrera, ziurtagiriak ez du baliorik izango eta beste agiri bat egin beharko da.

3. Xedapen gehigarri honen 1 apartatuko b) eta c) letretan agertzen diren erakundeak zergari buruzko 14.1 artikuluko b) letran jasotzen den salbuespeneko estatuetako batean ezarrita badaude eta errentak esleitzeko araubideko erakundetzat jotzen badira, salbuespen hori era honetan aplikatuko zaie haien kideei:

Errentak jasotzen dituen erakundeak bere kideen egoitza zehaztu ahal izango du, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauko I. eta II. eranskinetan xedatutakoaren arabera. Zuzentaru hori fiskalitatearen arloko administrazio elkarlanari buruzkoa da.

Salbuespena izateko eskubidea duten kideek erakundean duten parte-hartze portzentajearen arabera aplikatuko da albuespena. Portzentaje hori errentak eskuratzen diren urtearen aurreko urteko abenduaren 31n kideek dutena izango da.

Erakundearen ordezkariak edo erakunde kudeatzaileak egindako aitorpenaren bidez egiaztatu behar da erakundea errentak esleitzeko araubidekoa dela eta aurreko paragrafoan aipatzen den kideen parte-hartze portzentajea, eta aitorpen horrek Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen duen ereduarekin eta edukiarekin bat etorri beharko du.

Apartatu honetan aipatzen diren erakundeek aurreko apartatuko b) edo c) letretan aurreikusten den moduan egiaztatu beharko dute egoitza.

4. Erakundeek, eta xedapen gehigarri honetako 1 apartatuan jasota dauden errenta albue-tsiei dagokienez, xedapen gehigarri honetan ezarritako moduan egiaztatu beharko dute egoitza, atxikitze betebeharra duten pertsonen eta erakundeen albuespena aplikatu ahal izateko, edo, bestela, dagokion zerga administrazioaren aurrean, errenta horien dagokienez aplikatzekoak diren prozeduretan, atxikipenen urteko laburpenetan eta informazio aitorpenetan xedatutakoa gorabehera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1. Foru dekretu hau indarrean jarritakoan indargabetuta geratuko da maiatzaren 17ko 40/2011 Foru Dekretua, ez-egoiliarren gaineko zergaren arautegia onartzen duena.

2. Gainera, foru dekretu honetan ezartzen denaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko mailako xedapen guztiak indargabetuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. Establezimendu iraunkor bidez diharduten zergadunen kasuan, foru dekretu honek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Garapena

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio arautegi honetan xedatzen dena garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

OHARRAK

(1) 55/2016 Foru Dekretua, uztailaren 27koa.

(ALHAO, 88. zk., 2016-8-8koa).

(2) 6/2020 Foru Dekretua, otsailaren 18koa.
(ALHAO, 23. zk., 2020-02-26koa).